

Morfinazko lubakiak

Asko ikasi dugu denok Pedro Agerre Azpilkuetaren idatzietatik. Fraide, apaiz nahiz ezkertiarrek ongi asko gogoratu dizkigute haren predikuak, arrazoi batzuk ez badira, besteak direla medio. Halere, agure hark nahi zukeena baino gutxiago ikasi diogu.

Joan berri zaigun asteko *ttakun*-aren hitzak ongi ulertu baditut, euskal idazle modernoak hil daitezzen itxarotea besterik ez dugu, Axular bezain klasiko eta entzute-tsu bihurtu daitezzen gazte-edo diren horiek.

Sarako erretorearen *Gero* hura ezagututa, itxaroten geratu baino, agian, aktuatu egin beharko genuke; gaur hobe, bihar baino. Sinpleki esanda, gauzak gerorako uzteak dakarren kalteaz ohartuta, bidezkoena da idazle modernoak akabatzea. Goizetik gauera. Batzuk labanaz, besteak garrotez, baten bat plastikozko poltsa buruan lotuz, eta inor gaindosiarekin. Fusilatu ere egin litezke, lubaki irekien aurrean...

Baina, ez dakit nola kudeatuko dugun afera hori, Eliza Amaren bosgarren manamendua eta Lehendakariaren lehen galdera etikoa aintzakotzat hartuta.

* * *

Lurpean, zizareak dira nagusi. Irakurle, jakin ezazu ezen ironiaz kontatzen dudala, berez negargura handia ematen didana. Izan ere, literatura-idazle izan nahiz irakurle, hildakoari mesede gutxi egin baitakioke lurra eman eta gero. Gutxi balio dio hari hil ondorengo erramuzko koroak. Zerraldoaren gainean, alargunak utzitako arrosa usaintsuen lurrinak. Panegirikoak.

Biziari, bizitzan egin behar zaio laztan. Bizitzan eman musu. Bizitzan izara artean atsegindu... Idazleak omentzekotan, txalotu ditzagun orain, eta ez gero. Plazera izan dezaten idazleek eurek ere, eta ez *a posteriori*ko festazaleek bakarrik.

Jakina, diodan horrek beste eztabaida bat ere bada-



J. I. Basterrutxea

Oñasagarre

Apalategi

kar berarekin. Eta ez du horrek zerikusirik letra klasikoaren balioekin, balio etikoekin edo moralekin, izan azken horiek erreformazale edo kontraerreformazale. Ez du zerikusirik ez heriotza iragarritakoarekin ezta ustekabekoarekin ere.

Arestiko horrek berarekin dakarren gurdia da egungo gizartearen gainegiturak ez dituela aintzakotzat hartzen idazleak baldin eta *best seller*rik idazten ez badute, eta, ez diela aitortzen aparteko tokirik erretaula modernoetan idazle *lurtarragoei*.

Hori batetik, eta, bestetik, literatura-kritikariet eta literatura-dibulgatzaileek ez dutela asmatzen irakurle potentzialen goseak pizten... Batzuen kontura besteak, eta horiek haien kontura, gaizki gabilza dentxoak.

* * *

Ez dezagun Axular biluztu, Saizarbitoria janzteko. Gainera, ez dakit nola moldatuko litzatekeen nafarraren sotanarekin.

Jaurlaritzak eta bestelako erakundeek argitaratu ohi dituzten datuen arabera, plazerez eta plazerarengatik euskarazko literaturarik irakurtzen ez duen gizarte batean bizi omen gara.

Hezkuntza-sistemaren baitan daudenek irakurtzen omen dute, eskolarako. Aldiz, aisian, denbora libretan, gutxik itzaltzen omen du telebista, paper zuriaren gaineko narrazio bati ekiteko. Poesia, teatroa eta saioa saldu ere ez ei dira egiten.

Eztabaida ez da autore baten literatura bai, eta bestearena ez. Eztabaida da aro zibernetikoaren garaian, oinarritzko alfabetizazioak hutsune nabariak dituen mundu batean bizi ote garen.

Eztabaida da soziolinguistikoki anormala den herri batean bizi ote garen ala ez... Independentzia, atxikimendu libre, foruzaletasun, komunismo edo sozialismoaren musikarekin morfinaturik bizi ote garen balizko lubaki askatzaileetan. Ahaztuta kulturaren esparru ohi-koak, literatura barne. ■

Biziari, bizitzan egin behar zaio laztan.

Bizitzan eman musu. Bizitzan izara artean

atsegindu... Idazleak omentzekotan,

txalotu ditzagun orain, eta ez gero